



Lana / La obra

Paterak abiatzeko zain dauden bitartean, eguneko azken ferrya heldu da Tangerko portura. Bidaia bat nabarmentzen da iritsi berriaren artean, medina zaharrerantz pauso finkoz doan gizon bakarti bat. Ondo ezagutzen du ingurunea eta badaki zein den bere betebeharra. Bitartean, alderdi zaharreko kaleka labirintikoetan urrundik etorritako mila arima alderrai pilatzen dira. Haien ametsak hiriko kaleen galtzada-harri gogorren kontra egin zuten tupust, eta hor preso geratu dira, ez aurrera ez atzera. Beste batzuek, ostera, oraindik eusten diote esperantzari. Moussa gaztea da azken hauetariko bat. Malin utzi zuen familia, Europa helmuga, eta ez du amore emango paradisura eraman lezakeen azken saiakera burutu gabe. Fatimak ere eguneroko borrokan dihardu biziraupenaren alde, Rif-etik, familiak arbuatuta, alaba txikia bizkarrean alde egin behar izan zuen momentutik. Fatima, Moussa eta gizon heldu berriaren bideak Tangerko medinan gurutzatuko dira, heriotza zain dagoen karrika estu eta ilunenen artean.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Tangerko ametsak**
Egilea / Autor: **Jon Arretxe**
Saila / Colección: Uzta gorria, 7
Azaleko irudia / Imagen de cubierta: Cristina Fernández
ISBN / EAN: 978-84-9746-686-8
Salneurria / Precio: 18 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / N° páginas: 248
Formatua / Formato: 13,5 x 20,5 cm

Egilea / El autor

Jon Arretxe (Basauri, 1963), Euskal Filologian doktorea da, Heziketa Fisikoan lizentziatua, eta piano eta kantuko ikasketak ere baditu. Egile polifazetiko eta arrakastatsu honek aspalditik du ogibide idaztea, eta kantatu ere egiten du, gehien bat Bilboko eta Iruñeko Opera Koruetan. Sortu dituen hogeitau bat liburuen artean bidaia-narratioak (*7 kolore, Tubabu, Oroituz...*), umorezko istorioak (*Ostegunak...*), beldurrezkoak (*Sustrai beltzak...*) eta nobela beltzak dira nagusi. Azken genero honi dagozkio *Morto Vivace, Fatum, Xahmaran* eta azken lan hau, *Tangerko ametsak*.

ISBN: 978-84-9746-686-8



9 788497 466868

www.erein.com



erein